

taxi kitto!



**Xanduli, manduli, kikiriki...
eman goxokiak guri!**



Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Maidar Aranberri, Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta Eibarko ikastetxeetako
ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa

Maidar Aranberri eta Ekhi Belar.

Maketazioa

Ana Aizpurua.

Azaleko argazkia

Ane Sarasketa.

Banaketa arduraduna

Ainhoa Luz.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena



Gipuzkoako Foru Aldundia

Txikis Leak


✓ - Begiraa!!!
Pokemon bat!!!
- Zer deitu diozu
nire amari?



✓ - Ama, ama, eskolako
umeak txanpu deitzen
didate!
- Isildu, Johnson!



✓ - Zer egiten du arratoi
batek metraileta batekin?
- RA-TA-TA-TA-TA-TA



✓ - Zer gertatzen da
behi batek bidrioa
jaten badu?
- Esnea minduta
emango duela.



✓ Badoaz lau eta erdikoa erortzen da?



✓ - Indiar bat tabernan sartzen da eta esaten dio tabernariari:
- Zuk whisky gogorra eman, bestela indioak ez ordaindu. Tabernariak whisky gogorra ematen dio eta indiarrak esaten dio:



- Whisky hau ez da gogorra. Indioak ez ordaindu.

Hurrengo egunean gauza bera gertatu zen eta hirugarren egunean, indiarra azaltzen da eta esaten dio berriro tabernariari:

- Whisky gogorra eman, bestela indioak ez ordaindu.

Tabernariak orduan whiskyari bolbora-hautsa botatzen dio.

Hurrengo egunean indiarra tabernan sartzen da, esanez:

- Whisky arinagoa eman, atzo indiarrak puzkerra bota zaldia hil!



✓ - Mediku jauna, nire puzkarrek ez dute usaintzen.

- Goazen probatzera, bota puzker bat!

- PRRRRR!

- Zure arazoa da usaimenik ez duzula!!!

Denborapasak

Asmakizunak

- Oso handia da, gorria, horia eta laranja izan al da zer da?
- Ohialezkoa naiz eta lepoa dut, botoiak ere, eta jantzi esiten didazu. Zer naiz?
- Jai bat naiz neguan jaio naiz, umeci asko guztlatzen zaie eta asto gaithean noa etxez-etxe. Nor Naiz?
- Leku askotara eramaten zaitut baina zok gidatzen naiz, bi gurihil ditut. Zer Naiz?
- Goxogoxoa naiz ume askok jaten naute eta kariozak esiten ditut. Zer naiz?
- Ura daukat, pasta ere eta koilararekin jaten didate. Zer naiz?

Ariane Arrizabalaga

Hizki-zopa

M	E	I	A	O	E	N	W	R	C	N	W	Z	T	E	
N	A	A	W	H	Z	I	T	K	O	E	O	I	A	H	Z
C	R	M	A	W	L	A	G	U	T	R	O	P	W	E	
O	G	R	E	U	W	H	Z	U	B	H	Y	T	Z	L	
N	E	O	E	U	H	A	B	C	G	Y	Z	K	I	U	A
I	N	H	T	Z	E	C	B	D	V	W	D	B	H	T	N
Q	T	E	L	I	H	C	A	H	U	V	I	H	Y	Z	D
U	I	C	H	A	L	V	O	P	H	L	K	Y	W	Y	A
E	N	E	U	S	G	W	A	S	A	H	A	W	D	T	B
I	A	F	M	Z	H	E	T	M	B	G	H	Q	X	X	E
A	Z	K	G	E	D	F	N	F	H	W	S	W	A	S	R
H	S	W	X	G	B	Y	H	E	Z	L	Y	I	W	E	R
T	Z	I	O	M	W	N	H	Z	S	I	J	K	V	T	I
W	D	B	N	T	H	M	Q	U	O	I	T	A	L	I	A

AURKITU HEMENGO
HERRIALDE HAUEN.

- MARBUCELLOX
- ARGENTINA X
- CHILEX
- ZELANDA BERRIAX
- SENEGALX
- ITALIA X
- PORTUGALX
- MALIX




AURREKO HILEKO IRABAZLEA

Oraingoan ere langile jardun duzue, eta aurreko hileko lehiaketako erantzun asko jaso ditugu. Zozketa egin eta gero, irabazlea **Koldo Pintado** izan da. Argazkian duzue saria jasotzen. Zorionak Koldo!



7 desberdintasunak



**BIDALI ERANTZUNAK AZAROAK 13 BAINO LEHEN.
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA.** Urkizu 11. Eibar.

Izen-abizena

Adina Tel.....

Denborapasak

Hizki-zopa

1-LEPOA LUZEAR DU.

2-ITSASOAN DAGOETA
'OSO HANDIA DA.


3-ETXEKO ANIMALIA DA.

4-UGAZTUNA DA,
ANATATIDAN BIZI
DA ETA ARRAINAK
JATEN DITU.

5-TXANOGORRITXO
JAN NAHI DU.


6-SORGINEK DUTEN
MASKOTA DA.

7-ODOL HOTZEKOAK DIRA,
OBIPAROAK DIRA ETA EZ DUTE HANKARIK.




Amaia eta Markel

Labirintoa



Aymane eta Irune

Hizki-zopa



1-Ordua jakiteko erabiltzen da.


2-Non daude-izarrak?

3-Fruituak hazten dira hortik

4-Berea egiten duenean, umneak jaten diolote.

5-Itsasoan bizi dira.

Alazne Aizpurua

**IZENAK**

Pirritx (Aiora)

Porrotx (Joxe), Marimotots (Mertxe)

JAIOTERRIA

Lasarte-Orian

Jaioteguna

Pirritx: Urriak 8

Porrotx: Maiatzak 1 - Marimotots: Irailak 10

- Berba bakarrekin definitu ikuskizun berria: **PI:** Bizikidetza. **PO:** Bihurria. **MM:** Borobilean.

- Berba bakarrekin definitu Eibarko ikusleak: **PI:** Euskaldunak. **PO:** Txintxurriak (txintxo-bihurri). **MM:** Maitagarriak.

- Arraina ala haragia: **PI:** Txuleta. **PO:** Entsalada. **MM:** Sardinak.

- Fruta bat: **PI:** Sagarra. **PO:** Madaria. **MM:** Platanoa.

- Ametsetako oporrak non? **PI:** Lizarrako kanpiñean. **PO:** Olentzeroren bordan. **MM:** Zuhaitz gaineko txabolan.

- Zein da hiruretatik bihurriena? **PI:** Marimotots. **PO:** Porrotx. **MM:** Pirritx.

- Eta zeinek ematen du denbora gehien komunean? **PI:** Porrotxek. **PO:** Nik. **MM:** Porrotxek.

- Ipuin politena? **Hirurek:** Amonak gauean asmatzen eta kontatzen dizkigunak.

- Meriendarik goxoena? **PI:** Gaztainak. **PO:** Txorixo planplona. **MM:** Platanoa

- Nolakoa da zuen egun perfektua? **PI:** Presarik gabekoa. **PO:** Gamusinoen bila joaten garenekoa. **MM:** Niretzat egunero dira perfektuak

- Euskara osasuntsu dago? **Hirurek:** Osasuntsu baina askotan bakarti. Euskarak denon mimoak behar ditu!

- Zer egin bultzatzeko? **Hirurek:** Hitz egin, erabili.

- Urtarolik politena? **PI:** Uda, hondartzan putzuetan saltoka ibiltzea gustatzen zait-eta. **PO:** Negua, Olentzerorekin eta bere astoarekin jolasten dudalako. **MM:** Udaberria, loreak maite ditudalako.

- Zertarako birziklatu? **PI:** Aurrena murriztu!!! **PO:** Gero berrerabili!!! **MM:** Eta gero birziklatu!!! Gure planeta osasuntsu egon dadin.

- Ikasgairik kuttunena? **PI:** Sopia eta pilosopia. **PO:** Maitematika. **MM:** Natur zientzia.

- Eta gutxien gustatzen zaizuena? **PO:** Matematika. **MM eta PI:** Dena gustatzen zaigu.

PIRRITX PORROTX MARIMOTOTS

Borobilean, horixe da Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren ikuskizun berriaren izenburua. Aurten, gainera, inoiz baino goizago datozkigu Eibarrera; azaroaren 11 eta 12an (larunbata eta igandea) izango ditugu Unibertsitate Laboralean. Barre algarak egin, abestu, dantzatu eta primeran pasatzeko aukera ezin hobea izango dugu!

Xanduli, manduli, kikirriki... eman goxokiak guri!

Ezaguna egiten zaizue etxetik etxera mozorrotuta goxokiak eskatzen joateko ohitura, ezta? Ziur mila aldiz ikusi duzuela telesail edo filmeetan. Bai, Halloweenez ari gara. Estetika horrek, gainera, tokia hartu du hemen inguruan, baina ba al zenekiten lehendik ere hemen Halloween ospatzen zela? Tira, ez izen horrekin. Arimen Gaua esaten zitzaion... beno ez, esaten zaio! Ohiturak jarraitzen du-eta.



Halloweeni Arimen Gaua esaten badiogu, 'truco o trato' esaldia 'Xanduli, manduli, kikirriki... eman goxokiak guri!' moduan esango dugu. Gazteak baserritik baserrira joaten ziren goxoki eskean, izara eta maindireekin mozorrotuta, euren burua ezkutatzuz. Horrela joan izan dira Eus-

Eibarren, aurten ere, azken urteetan bezala baserritik baserrira irtengo dira haur eta gaztetxoak esaldi magikoa esan eta poltsak goxokiz betetzera (Argazkia: Marta Vitores).

kal Herriko gazteak ehundaka urteetan zehar, Oier Araolaza antropologo eibartarrak dantzan.eus webgunean idatzitako artikulu baten arabera


('Halloween euskal festa bat da – IV'). Berak esaten duenaren arabera, Arimen Gaua Europa osoan Erdi Arotik gutxienez ospatzen diren Neguko Festen (San Martin, San Nikolas, Olentzero, inauteriak,...) beste aldera bat baino ez da.

Hainbat urtetan jai hau ospatzeari utzi zitzaion Euskal Herrian, baina gure aiton-amon edo birraitona-birramonek ospatzen zuten (ahotsak.eus-en 'Halloween, euskal festa?' bideoan ikus daitekeen moduan), eta orain ere hainbat herritan hasi dira berriz ohitura berreskuratzen. Eibarren ere irten izan dira urte hauetan baserritik baserrira, esaldi magikoa esan eta poltsak goxokiz betetzera.

Gurea den festa izanik, zergatik ez dugu gure moduan ospatuko? Bada, **'Xanduli, manduli, kikirriki... eman goxokiak guri!'**.



Izara eta maindireekin mozorrotuta, buruz ezkutatzuz, ehundaka urtetan baserritik baserrira joan dira gazteak (Argazkia: Marta Vitores).



Gaur egun bizitzen ari garen eraldaketa digitala dela-eta, **ALDATZEN** 1x1 (ikasle 1-ordenagailu 1) ekimenaren aldeko apustua egin dugu. Ikasle bakoitzak ordenagailu bat izatea da oinarria eta helburuak dira, batetik, ikasleek ahalik eta ikasketa pertsonalizatuena izatea, eta bestetik, ikasleen gaitasun digitala hobetzea. Aurten LH5. mailako eta DBH3. mailako ikasleek testuliburu arruntak erabili beharrean lizentzia digitzalez baliatuta gelan eta etxean jardungo dute ordenagailuarekin.

URKIZU ikastetxean, aurtengo ikasturtean, irakaslegoa “*Ikastetxean giro positiboa sortuz*” formakuntza ikastaroa jasotzen ari denez, lehenengo egunetan umeekin jolas eta ekintza kooperatiboak egin genituen. Umeak oso gustora aritu ziren. Irailaren 21ean LHko ikasleak Arratera txangoa egin zuten. Primeran pasa zuten eguraldia lagun, jolasekin eta talde-bazkariarekin. Aurten, berrikuntza bezala, txikien jolastokian “*jolas lasaien txokoa*” jarri dugu martxan, oso emaitza onekin.



SAN ANDRES ikastetxeko 4. mailako ikasleak Bertizeko barnetegian egon dira eta oso ekintza politak egin dituzte: tirolina, arku... Bigarren ziklokoak, berriz, Zuhatzan pasa dituzte egun batzuk eta Lehen Hezkuntza osoak Arratera egin du txangoa.

ARRATEKO ANDRA MARI ikastetxean gogoz hasi dugu ikasturtea eta martxan gaude jada: gela berria, irakasle berria... Eta hainbat ekintza ere egin ditugu honez gero: 5. eta



6. mailakoek “*Gas Museoak*” antolatutako tailerrean hartu zuten parte, eta 4., 5. eta 6. mailakoak, berriz, “*Energiaren Mundua*”-ren eskutik Txaltxa Zelain antolatu dituzten tailerretan izan dira. “*Gurasoak ere eskolara*” egitasmoa ere martxan jartzeaz dago. Ea taldetxo bat lortzen dugun aurten ere. Gurasoak, animatu eta izena eman!!!

ITURBURUko 6. mailakoak Zuhatzan izan ginen irailaren 25etik 27ra. Azkeneko urteotan maila horretakoak bertara joan izan gara. Zuhatza Arabako Uribarri-Ganboa urtegiaren dagoen uharte txiki bat da. Hara iristeko




txalupatxo bat behar izaten da. Egunero egin genituen uretako ekintzak. Primeran pasatu genuen, esperientzia bikaina eta ahaztezina!

Kaixo lagunok! Hemen gatzoz **LA SALLE**koak oporretatik bueltan indarberrituta. Irailaren 1go ziklokok San Pedron egon dira, eta 2. ziklokoak, berriz,



Donostiako Zinemaldian, pelikula bat ikusten. Eta urriari hasiera ezin hobea emateko Izartxo aisialdi taldekoekin *Back to the 80's* makro festa ospatu genuen ikastetxean.



ETXEAN EGINDAKO XABOIA

Etxean eskuak garbitzeko duzuen xaboi azpazu zaretela? Zuek egindako xaboi erabili nahi duzuela? Hona hemen aukera bikaina!

MATERIALA

- ✓ Glizerina.
- ✓ Xaboi azpazu esentzia-olioak.
- ✓ Xaboi azpazu koloretzailea.
- ✓ Moldeak (silikonazkoak izan daitezke, izotza edo txokolatinentzat erabiltzen direnak).



- ✓ Alkohola lainoztagailuan (betiko "frix-frixa").
- ✓ Plastikozko jostailuak xaboi azpazu ezkutatzeko (aukerakoa)*



PAUSOAK

- 1.- Moztu glizerina zatitxoetan eta urtu mikrouhin-labean (segundo batzuk). Maria bainuan ere urtu daiteke.
- 2.- Koloratzaile eta esentzia tanta batzuk gehitu eta eragin makiltxo batekin. Pauso hau azkar egin behar da, glizerina nahiko azkar hozten da-eta.
- 3.- Isuri glizerina moldeetan, alkohol apur bat lainoztatu burbuilak kentzeko eta utzi gogortzen ordu batzutan.


* Xaboiaren barruan sorpresaren bat sartzea nahi baduzue, moldeak erdiraino bete, utzi xaboi apur bat gogortzen, sartu sorpresatxoak eta bete moldeak goraino glizerina gehiagorekin.

Ti-ta!

ZORROZKAILU BIRZIKLATUA

Tic Tac karamelu txikien kaxa hustu eta kendu etiketak. Tapa kendu eta itsatsi barrualdetik zorrozkailu txiki bat silikona beroarekin edo itsasgarriarekin, justu karameluak irteten diren zuloaren atzean. Margotu kaxa nahi duzuen moduan.





AZENARIO PASTELA

OSAGAIK (4 LAGUNENTZAT)

- ✓ 175 ml ekilore-olio
- ✓ 135 g azukre beltz
- ✓ 3 arrautza (irabiatuta)
- ✓ 175 g azenario birrindu
- ✓ 85 g mahaspasa
- ✓ 50 g intxaur (txikituta)
- ✓ Laranja baten azala (birrinduta)
- ✓ 175 g irin (legamiarik behar ez duena)
- ✓ Koilarakada bat sodio bikarbonato
- ✓ Koilarakada bat kanela-hauts
- ✓ ½ koilarakada intxaur muskatu hauts
- ✓ Glasatuarentzat:
- ✓ 200 g gazta (philadelphia motakoa)
- ✓ 100 g azukre-hauts
- ✓ koilarakada laranja zuku



PAUSOAK

- 1.- Labea 180°-tan piztu eta 20-23 zm-ko diametroko moldean olioztatu. Katilu handi batean olio, azukrea eta arrautzak irabiatu; eta azenarioa, mahaspasak, intxaurrek eta laranja azal birrindua gehitu.
- 2.- Irina, bikarbonatoa, kanela eta intxaur muskatu hautsa osagai likidoen nahasketaren gainean iragazi.
- 3.- Egurrezko espatula edo koilara batekin kontuz nahastu. Irin arrastorik ez dagoenean nahasketa moldera pasatu eta 35 minutuz egosi (sartu labana eta garbi ateratzen denean eginda egongo da). Labetik atera eta moldearen barruan utzi hozten 10 minutuz. Moldetik atera eta utzi hozten.
- 4.- Glasatua prestatzeko gazta, azukre-hautsa eta laranja zukua sardexka batekin nahastu. Bizkotxo gainera bota eta espatula batean goiko aldea estali.

FRUTA-ANIMALIAK



Errezeta eta eskulana uztartzen dituen proposamena ekartzen dizuegu oraingoan. Fruta modu dibertigarrian jateko aukera. Frutekin trikua, dortoka edo katua osatzeko behar dituzun osagaiak azaltzen dizkizuegu. Trikua egiteko, adibidez, madari bat, mahatsa, bi oliba beltz eta txotxak beharko dituzu. Dortoka egiteko, sagar erdia eta bi oliba beltz behar dira. Eta katutxoa egiteko, marrubi handi bat, oliba beltza eta sagar tiratxoak dira beharrezkoak.

Modu ezin hobean hasi dute ikasturtea **ITURBURUN!** Oporretatik iritsi eta berehala arrautzak eta inkubagailua eraman zuten gelara 6. mailakoek. Mimo eta maitasun handiz zaindu dituzte aste batzuetan zehar eta bat-batean... txitak jaio ziren! Imajina ezazue nolako poza eta algara. Euren esperientzia nolakoa izan den kontatu digute.



Nola bizi izan duzue arrautzak zaindu eta txitak jaiotzeko momentua? Zer sentitu eta ikasi duzue?



**Ane
Azpiri**
11 urte

Lagunekin kalean negoziarekin irten zen txitak ikastolara ekartzeko gaia. Joan den kurtso amaiera zen eta irakasleak esan zigun kurtso berria hastean ekartzeko. Orduan, baserritik inkubagailua ekarri nuen. Bi egunetik behin ura bota behar izan diogu eta hiru aste egon dira arrautzak barruan. 18 ekarri genituen, euretako bat lehen egunetan apurtu zen eta bost jaio dira momentuz. Gero, lagunek etxera eraman ahal izango dituzte txitak, erakusteko, eta gero baserrira eramango ditut.



**Liher
Askasibar**
11 urte

Arrautzak ekarri zituztenetik noiz jaioko ziren zain egon gara. Jolas orduan beti pentsatzen genuen justu momentu horretan jaioko zirela, urduri geunden. Izugarria izan da txitak jaiotzen ikustea, inoiz ez nuen horrelakorik ikusi. Oso polita! Amak ez dit uzten txitak etxera eramaten, beraz orain aprobetxatuko dut. Baserri girora hurbiltzeko balio izan digu.



**Amaia
Errasti**
11 urte

Poz handia hartu nuen Anek arrautzak ekarri zituenean. Ondo pasatu dugu arrautzak zaintzen. Interesgarria izan da txitak jaiotzen ikustea. Jantokitik etorri ginenean... "jaio da!". Txita bat etxera eramatea gustatuko litzaidake, baina ez dakit oraindik. Lehendik ere kuriositatea neukan, nire ahizpari ez ziotelako etxean txitarik edukitzen uzten. Orain, Anekin ikasi dugu nola zaindu behar diren.



**Hegoi
Lorenzo**
11 urte

Urduri egon naiz txitak jaio aurretik. Animaliak asko gustatzen zaizkit eta hunkigarria izan da txitak jaiotzen ikustea. Beti ikusi nahi izan dut txita bat jaiotzen. Beasaingo familiak baserria dauka eta beti eskatu dut bertara joatea. Klasean txitengandik gertu nago eta begira egon naiz ia denbora osoan.




**Maialen
Jauregi**
11 urte

Inoiz ez dut txita bat jaiotzen ikusi eta arrautza nola hazkatzen zuen harritu ninduen. Tiak baserria dauka, baina ez nuen horrelako esperientziarik izan aurretik. Egun bereziak izan dira, aztoratuta ibili gara. Lehen txita jaio zenean oso pozik jarri ginen, saltoka hasi ginen.




**Julene
Errasti**
11 urte

Oso pozgarria izan da txitak jaiotzen ikustea. Lehena jaio zenean, beste geletatik ikasle asko etorri ziren gurera. Txilioka geunden denak. Lehenengo begiak atera zituen, gero aurpegia... Inkubagailua desentxufatu genuen nahi barik emozioagatik! Orain arte ez dut txitarik eskuetan hartu (*Txikitto!*-rako argazki atera arte...).




TANGO IRITSITA, HIRU DIRA (6 URTEK AURRERA)

New York-eko Central Park-eko zooko pinguino bikote berezi baten egiazko historia da; biak arrak izan arren, kume bat izateko aukera eman zien, aurrez harri bat alferrik txitatzen ari zirela ohartu eta gero. Horrela jaio zen Tango, bi aita zituen lehen pinguinoa.



OTTOLINE ETA AZERI MOREA (8 URTEK AURRERA)

Ottoline bildumaren laugarren titulua da. Oraingoan, Ottolinek pertsonaia burutsua eta trebatua ezagutu du, Azari Morea, eta berari eta Mr. Munroeri zin egiten die gauze safari bat egingo dutela. Bere lagun berriarentzako sari gisa, Ottolinek bere etxean egingo duen jai batera gonbidatzen du; bertan, lagunduko dio ohartzen bere idazkari isila eta adeitsua bere bizitzako benetako maitasuna dela.



ALTXOR KUTXA (10 URTEK AURRERA)

Sofiak lehenengoz igaro ditu udako oporrak kostaldeko herri batean; bertan, ume talde baten lagun egin da. Batez ere Migelekin moldatzen da ondo. Migelek 11 urte ditu eta arazo larria du: bere aitona herentzia banatu du eta Gines osabak bere zatia higiezin agentzia bati saldu nahi dio, musikaz bizitzen saiatzeko. Horrek esan nahi du hondartzara irakurri eta turistentzako hotelen urbanizazio bilakatuko dela.

“DIANA DIBERTIGARRIA” (SAN ANDRES IKASTETXEA)

SAN ANDRES ikastetxeak proposamen dibertigarria ekarri digute lagun artean ondo pasatzeko. Diana dibertigarriarekin zuen punteria trebatu, taldean barre egin eta emozionatzeko aukera izango duzue.

Helburua:

Talde jokoa egitea.

Nola jokatzen da?

- Lau laguneko bi talde egin behar dira.
- Beste bi lagun adi egon behar dira paperean puntuak zenbatzeko.
- Taldekide bakoitzak behin botako du puxika.
- Azkenean, taldekide guztien puntuak batuko dira.
- Puntu gehien lortzen dituen taldeak irabazten du.

Arauk:

- Diana barruan marraztuta dauden laukizuzenen barruan geratu behar da puxika. Marraren baten gainean geratuz gero, puntuazioa 0 izango da.

Jolastokixan jolasian



- Lurrean marraztuta dagoen marraren atzetik bota behar da puxika. Ezin da marra zapaldu.
- Talde bien artean berdinketa badago, puntuazio gehien lortu duen taldekide bakoitzak behin botako du berriz. Euren artean puntuazio altuena lortzen duenak irabaziko du.

BIDEOA:

<http://etakitto.eus/txikitto/sanandres.html>

Azaroak 6, astelehena

49. **Tolosako abesbatza** lehiaketaren barruan “Lautitia Children’s Choir” (Hungaria). 20:30ean Coliseo antzokian. 3€.

Azaroak 17, ostirala

Jazinto Olabe-ko Ludotekan **sukaldaritza tailerra** LH 3. mailatik 6. mailara arteko ikasleentzat. 18:00etan.



Azaroak 18, larunbata

Jon Braun antzerki-ikuskitzuna. 17:00etan Coliseo antzokian. 5€.

Azaroak 19, igandea

San Andresetako Eskolarteko **Bakailao Lehiaketa**. 12:00etan Untzagan.

Azaroak 20, astelehena

Nazioarteko Haurren Eguna dela **eta jolasak Jazinto Olabe-ko Ludotekan** HH3. mailatik 6. mailara bitarteko ikasleentzat.

Azaroak 22, asteazkena


Zezili Deunaren kalejira Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako ikasleekin. 17:00etatik aurrera.

Azaroak 25, larunbata

Zapatuetako Ipuina: Bizarrurdiak (Maite Franko). 5 urtetik gorako umeentzat. Umeen liburutegian 18:00etan.

Azaroak 29, asteazkena

San Andresetako dantzaldia, DJ Xaiborrekin. 18:30-21:00 Untzagan.



BAIETZ LORTU!



Hara hemen munduko boligraforik handiena! 5,5 m luze da eta 37,23 kg pisatzen du. Indiako Acharya Makunuri andereñoak egin du.



Argazkian duzuen John Evans-ek munduko errekorra hautsi zuen, 33 segundoz eutsi zuen bere burua gainean auto astun hori.



Jeison Orlando venezuelarrak ditu munduko oinik handienak. Eskuineko oinak 40,1 cm-ko luzera du eta ezkerrekoak 39,6 cm-koa.



Munduko azalorerik handienak lau kideko familia oso bat elika dezake hilabetez. Peter Glazerbrook-ek landatu zuen eta 27,8 kg. pisatzen du.



Texas-eko Big Red 907 idiak ditu munduko adarrik luzeenak. 292,1 cm luze dira, ia 3 metro alde batetik bestera!



MERK ESTRALURTARRA

Denbora luzean espazioko ontzi arraro bat Lurraren punta batetik bestera zebilen. Ontzi horren jatorria Lurretik oso urrun zegoen eta bere okupatzaile bakarra Merk izeneko estralurtar bat zen. Merk, ikertzaile bat zen. Izarretan zehar bidaiatzen eta bizi forma berriak ezagutzen eta ikertzen aritzen zen.

Merk, gizakiekin konparatuz txikia zen. Metro bat ingurukoa, gorputz mehea, marroi kolorekoa eta ilerik gabekoa. Ez zuen ez belarririk ez sudurrik, begi oso handiak eta beso luzeak zituen. Ez zuen inolako arroparik erabiltzen. Espazio ontziak nolabaiteko matxura izan eta La Salle ikastetxeko patioan lurrartu zuen.

Umeak patiora jaitsi zirenean a ze nolako ezustea!! , patioaren erdian burdin koloreko makina ikaragarri bat zegoen. Bere alboan, ipuinetako pertsonaia zirudiena zegoen. Umeak garrasika hasi ziren: Martiztarrak etorri dira! Nor zara zu? Galdetu zioten. Izakiak esan zuen euskara oso garbian: - *Merk dut izena, nire planetako ikerlaria naiz eta zuen Lurra aztertzeraz etorri naiz.*

Orduan begi handi haiek itxi zituen, umeak konturatu ziren Merk triste zegoela eta zer gertatzen zen galdetu zioten. Estralurtarrak begiak poliki ireki eta erantzun zuen:

Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko. MEREZI DU...



- *Planeta ederra duzue, ikusi ditudanen artean ederrenetarikoa, baina ez duzue zaintzen. Animaliak desagertzen ari dira, basoak eta belardiak ere, zikinzeria eta kutsadura ugari sortzen duzue eta dena naturara isuri. Geroz eta larriagoa da Lurraren egoera eta ez duzue ezer egiten egoera hau konpontzeko.*

Orduan ikastetxeko patioan, Agenda 21 dela eta, peto berdedun ume batzuk agertu ziren. Merkek ikusterakoan petoen zergatia galdetu zuen. Umeek Agenda 21 zer zen azaldu zioten: errespetua, zaintza, birziklatzea etabar.

Orduan, Merkek begi handi haietatik malko bat atera eta aho txikiak irribarre antzeko bat eginez, esan zuen:


- *Zuen ekimenak itzaropena eta alaitasuna ematen dit, zuen exenplua zabaldu ezkerro Lurrak oraindik ere irtenbidea izango du.*

Hain zegoen pozik Merk, bere ontziaren matxura konpondu egin zela.

- *Orain bai joan naitekeela, zuek bezalako jendearekin arazoak konpondu daitezke.*

Eskuineko besoa luzatu, agur esan, bere ontzian sartu eta ziztu bizian aldendu zen.

Swati Zubiate



zu margolari